UROLA GARAIA: ZER DA ETA NORA DOA?

·Zuek bai jakin!: Iñaki Etxezarreta **·Elkarrizketa:** Jon Iturbe **·Izerdi patsetan:** Gorka Mendia eta Mikel Perez, eskubaloi jokalari beteranoak **·Boteprontoan:** Harkaitz Barreros

Herri Aldizkaria

Otamotz

2008ko urtarrila

133. alea



PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

GURE LANAK PREBENTZIOA DU HELBURU

KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
☎ 943 72 41 00
e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09
e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarrieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Azaleko argazkia:** Gotzon Aranburu **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarrieta **Publizitatea:** Iker Telletxea - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

04 **Hilabete honetako gaia**
Urola Garaia: Zer da eta nora doa?

11 **Erreportajea**
Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak

12 **Komikia / Egurra partitzen**

13 **Zenbat buru, hainbat aburu**
Inauteriak atsegin al dituzu? Zein mozorro duzu gustukoen?

14 **Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**

15 **Gure gomendioa**

16 **Klik eta klik**
Jose Luis Garmendia

18 **Zuek bai jakin!**
Iñaki Etxezarreta

23 **Argazki zaharra**

24 **Elkarrizketa**
Jon Iturbe

26 **Izerdi patsetan**
Gorka Mendia eta Mikel Perez, eskubaloi jokalari beteranoak

28 **Gure aholkuak**

29 **Literatura**

30 **Boteprontoan**
Harkaitz Barreros

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du.

Nora doa Urola Garaia?

Goierri eta Debagoiena ondo doazen ustea oso hedatua da. Horren aurrean, Urola Garaian ekimenik ez dagoela dirudi batzuetan. Hala al da? Hala bada, zergatik? Galdera hauei eta beste batzuei erantzuteko mankomunitate mailako erakundeetako ordezkariekin eta alkateekin izan gara. Ale honetan Anton Arbulu Urola Garaia Mankomunitateko presidente eta Zumarragako alkatearen, Jon Luqui Uggasa garapen agentziako kudeatzailearen eta Javier Blazquez Urola Garaiko Industrialdea enpresako kudeatzailearen iritziak jaso ditugu. Uda bitartean UGLE, Lenbur eta gainontzeko alkateak mintzatuko dira.

Anton Arbulu: "Urola Garaian komunikabideez baliatu behar dugu, Euskal Herriaren erdian baikaude"

Anton Arbulu, Zumarragako udaletxeko alkatearen bulegoan.

Anton Arbulu Zumarragako alkatea Urola Garaia Mankomunitateko presidentea ere bada. Erakunde honek eskualdearen norabidea markatu beharko luke, baina askoren ustez horretarako gorputzik ez du. Mankomunitatea 1988an sortu zen eta Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragak osatzen dute.

Dagoeneko hilabete batzuk daramatzazu karguan, zer egin duzu denbora honetan?

Exekutiba duela aste batzuk eratu zen. Jon Luqui Uggasako kudeatzaileari kudeaketa plana eskatu diot eta hori aztertu behar dugu. Mankomunitatea garatu eta indartu behar da. Aldundiak plan estrate-

gikoetarako dirulaguntzak ematen ditu eta guk geure plana eskatu behar dugu. Guztiok gara egungo egoeraren errudun.

Zein da, bada, egungo egoera?

Uggasako kudeatzaileak beste kargu bat izan du azken urteotan eta eskualdea umezurtz egon da. Jon Luqui trebea dela uste dut: ezagupenak ditu eta Aldundian ardurako kargua izan du. Ea Urola Garaia aurrera ateratzeko indarrak batzen ditugun. Horretarako oinarria eskatu behar dugun plan estrategikoa izango da.

Zer gehiago egin duzu azkenaldian?

Luquirekin, Xabier Arratibel UGLEko zuzendariarekin eta Javier Blazquez Urola Garaiko Industrialdeko presidentearekin bilerak izan ditut. Helburuak lana koordinatzea eta eskualdeak berezko diseinua izatea dira.

Ez al duzu uste Mankomunitateak eta Uggasak eduki falta dutela?

Garapen agentziak 90eko hamarkada hasieran sortu ziren eta helburu estrategikoa zuten, baina egun indargabetuak daude. Horregatik da hain beharrezkoa plan estrategikoa: Uggasaren etorkizuna zehazteko.

Enpresen eta elkarteen parte hartzea nahikoa bultzatzen al da?

Gutxi parte hartzen dute, nahiz eta horretarako aukera eskaintzen zaien.

Zer bide hartu beharko luke Mankomunitateak?

Udalen elementu komunak koordinatu beharko lituzke. Egun gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna lantzen ari gara. Beste gai batzuk ere udalerrietatik haratagokoak dira: azpiegiturak, industriaren garapena... Koordinazio handiagoa behar da, ezin gara bakoitza bere aldetik joan.

Zeintzuk dira Urola Garaiaren indar guneak eta ahuleziak?

Plan estrategikoak zehaztuko ditu.

Ez al duzu uste beste eskualde batzuekin alderatuz atzean gelditu dela?

Umezurtz egon da. Argi dago. Komunikabideez baliatu behar dugu. Euskal Herriaren erdian gaude. Ea behingoz gaiari heltzen diogun, Aldundiaren laguntzarekin.

Ia bizitza osoa daramazu eskualdean lan egiten. Zer egin beharko litzateke?

Gipuzkoaren ardatz estrategikoak Pasaiako portua eta Beasain-Durango errepidea dira. Errepide horren Beasain-Zumarraga zatiak garapen aukera itzela eskaintzen duela uste dut. Ea zer dioen plan estrategikoak. Aldundiak egitasmoa gelditu duela uste dut eta Uggasako kudeatzaileari eurekin harremanetan jartzeko eskatu diot, zer egin daitekeen zehazteko. Gune garrantzitsua da eta ea zer gertatzen den.

Ez al zaude Aldundiarekin gustura?

Inguru honekin sentsibilitate handiagoa izateko eskatzen diot. BEZ bitartez diru asko biltzen du hemen. 60.000 milioi pezeta fakturatzen dituen enpresa dugu. Aldundiaren sentsibilitatea handiagoa izan beharko litzateke.

Zer ekarri beharko luke Beasain-Durango errepideak?

Industriarako lurzorua prestatu behar dugu, horrek inguru honen garapena ekarri baitezake.

Hori diote Abiadura Handiko Trenaz.

Gai horri buruz ez dakit asko eta nahiago dut zuhurra izan. Gaia oraindik definitu gabe dagoela uste dut, baina aurre egin behar zaio.

Urola Garaiak zergatik du bere Mankomunitatea, Goierrikoan egon beharrean?

Nik nahiago nuke haiekin lan egin. Goierrik Urola Garaiak baino indar handiagoa du, baina egoera beste hau da. Nire ustez, gu ere Goierri gara.

Bukatzeko, bere garaian Lenbur Urola Garaiko turismoaz arduratu behar zela esan zen. Zumarraga ez dago Lenburren barne. Zergatik?

Urretxu ere ez dago Lenburren. Turismoa eskualde mailan landu behar da eta Plan Estrategiko berriak esan beharko du nor arduratu behar den gai horretaz: Lenbur, Uggasa ala Mankomunitatea. Dena den, 2007an Mankomunitateak dirulaguntza eman dio Lenburri.

Zure ustez, nor arduratu beharko litzateke turismoaz?

Nire iritzia dut, baina ez dut eman nahi Plan Estrategikoak zer dioen ikusi arte. Guk Antigua dugu, Gipuzkoako mirarietako bat. Hori dela eta, turismo kontuan zorrotza izango naiz.

Bere garaian ez al zen argi gelditu Lenbur arduratu behar zela turismoaz?

Ez zen hala izan. Nik eskualdeko turismoa indartu nahi dut. Lenburrek eskaintzen duena erakargarria da, baina Antigua erakargarriagoa da. Antiguak Lenburrek baino bisitari gehiago ditu. Ea zer dioen Planak, baina turismoa arduraz eta etorkizunari so bultzatu behar dugu.

Lenburren azpiegitura eta esperientzia ez al lirateke kontuan hartu behar?

Antigua sustatzeko ez dut azpiegiturarik behar. Ez naiz azpiegitura handien aldekoa, mantenu lan neketsua eskatzen baitute eta etorkizuna baldintzatzen baitute. Antiguan Jesus Perez besterik ez dugu eta urtero 40.000 lagun etortzen dira.

Javier Blazquez: "Lursailak eskaintzen baditugu, kooperatibak hona etorriko dira Nafarroara edo Arabara joan ordez"

Javier Blazquez, eskuinean, Ugisako bere lankideekin.

Urola Garaiko Industrialdea (Ugisa) Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta mankomunitateko udalek osatzen dute. %51 lehenengoarena da, %24,5 bigarrenarena eta gainontzeko %24,5 hirugarrenena. Lehenengo Legazpiko eta Zumarragako industrialdeak sortu ziren. 2001ean bi hauek elkartu ziren eta gero Urretxu eta Ezkio-Itsasoko udalak sartu ziren. Ugisaren bulegoak Argixaon daude eta bertatik Urola Erdiko industrialdea ere kudeatzen da. 2000. urtetik Javier Blazquez da kudeatzailea. Nahiz eta Ugisaren jabe nagusia Jaurlaritza izan, mankomunitate mailan lan egiten duenez, Blazquezekin hitz egin dugu.

Zergatik erabaki zen udalek industrialdeen kontuan batera lan egitea?

Eraginkortasun kontua da. Herri bakoitzak bere aldetik lan egiteak ez du zentzurik. Hobe da industrialdeak sortzea non komeni den denen artean adostea. Herri batean edo bestean egoteak ez du eraginik herritarrentzat eta langileentzat. Bestalde, denek elkartuz gero, inbertsioak egiteko ahalmen handiagoa lortzen da.

Nola dago antolatuta Urola Garaiko Industrialdea?

Eusko Jaurlaritzaren Sprilurrek bost ordezkari ditu batzarrean, Gipuzkoako Foru Aldundiak bi eta eskualdeko udalek beste bi. Presidentea eskualdekoa da beti. Egungoa Anton Arbulu da. Bertako beste ordezkaria Itziar Agirre urretxuarra da. Bileretara Ezkio-Itsasoko Joseba Etxezarreta eta Legazpiko Ane Urkiola ere etortzen dira. Hiru hilabetetan behin elkartzen gara gutxienez eta alkateak ere gonbidatzen ditugu. Bestelakoan, hiru lagun gaude: teknikaria, idazkaria eta ni.

Zein da Ugisaren helburua?

Ekimen pribatuak egiten ez duenean, enpresentzako lurzorua lortzea. Babes ofizialeko pabilioiak direla esan dezakegu. Azken helburua, enpleguak eta inbertsioak sortzea da. Ekimen pribatuak behar bezainbeste lan egiten duenean, ez dago gure beharrik. Diru hori beste gauza batzuetarako bidera daiteke. Egungo helburua dibertsifikazioa lortzea da, inguru honetan monolaborantza nagusi dela esan baitaiteke.

Nola lan egiten duzue?

Elkarte Anonimoa gara eta administrazio kontseilua akzio kopuruaren arabera osatua dago. Lur sailen bat erosi nahi dugun bakoitzean, tokian tokiko Udalaren eskutik joaten gara. Ez gara lurra merke erosten saiatzen enpresariei mesede egiteko. Zuzenak izaten saiatzen gara.

Zertan zabiltzate orain?

Urretxu eta Legazpi artean lan egiten ari gara. 20.000 metro karratu pabilioi eraikiko dira. Aurten hasi nahi dugu. Lursail horren goialdean kamioientzako aparkale-

kua egin nahi dugu Uggasak eta guk. Izan ere, hori eskualdearen gabezietako bat da. Epe ertainera, Dia supermerkatu inguruan beste 40.000 metro karratu inguru ditugu. Bestalde, SPRIk Ezkio-Itsason lurrak erosi zituen, Mein enpresaren atzean, baina Abiadura Handiko Trenarekin zer gertatuko zain daude bertan zer egin erabakitzeko. Eskualdean bideragarritasun azterketak ere egiten ari gara. 20 lursail inguru aztertu ditugu.

Zer hartzen duzue kontuan ezertan hasi aurretik?

AHT eta Beasain-Durango oso kontuan izan behar dira ezer egin aurretik. Bestalde, dagoeneko Ulma Legazpira etorri da eta kooperatiba gehiago erakarri nahi ditugu. Lursailak eskaintzen

"Goierrirekin koordinatuta lan egin beharko genuke: elkarrengandik bost minutura gaude eta indar handia dute"

baditugu, hona etorriko dira Nafarroara edo Arabara joan ordez. AHTk zeresan handia izango du horretan, are gehiago geltoki eta guzti heltzen bada. Hori dela eta, Plan Estrategikoa oso garrantzitsua da. Geure burua prestatu beharra dugu trena etortzen denerako. Hor dago eskualdearen garapena epe luzera.

Helburu nagusietako bat lehen aipatutako dibertsifikazioa al da?

Bai, baina beste behar batzuk ere badaude. Eskualdeko enpresa batzuek pabilioiak sakabanatuta dituzte eta horiek guztiak elkartzea komeni da. Lur berria hartu aurretik, hobe da horiek edo ixten diren enpresek utzitakoa erabiltzea.

Zer diozu orainaz? Ez al gara atzean gelditu?

Esan bezala, metalarekin lotutakoa da jarduera bakarra ia. Lurzorua behar da beste batzuk erakartzeko. Bestalde, politikoek sagu burua edo lehoi isatsa izan nahi dugun erabaki beharko dute: trenak Goierri osoa lotuko duenez, gure aldetik joateak ez du zentzurik. Goierrirekin koordinatuta lan egin beharko genuke. Elkarrengandik bost minutura gaude eta indar handia dute. Gauzak bikoizteak ez du zentzurik.

Ba al dago Goierri behekoekin nahikoa elkarlan?

Aurreko legealdian eskualdea antolatzeko lan taldea osatu zen. Politikari berberak bilera guztietan daude eta erabaki guztiak hartzen dituzte. Ez du zentzurik. Aipatutako lan taldean beste egitura batez hitz egin zen, baina airean gelditu zen. Berregituratu beharra dago, eraginkorragoak izan nahi badugu. Orain arteko koordinazioa pertsonen artekoa izan da. Jon Luquirekin harreman ona dut, adibidez, eta zenbait ekimen aurrera atera ditugu. Bestelakoan ez dago koordinaziorik.

Urola Garaia Mankomunitatea sortzea hanka-sartzea izan zela uste al duzu?

Beharbada ez, baina orain Goierrirekin lan egin behar dugu. Gure eskualdea da. Ez dut esan nahi batak bestea jan behar duenik, baina elkarlan handiagoa egon beharko litzateke.

Udalen arteko koordinazioa, behintzat, egokia al da?

Ugisari dagokionez, bai. Guztien artean erabaki da Legazpin industrialde berria egitea, adibidez.

Enpresen arteko elkarlana behar bezainbestekoa al da?

Bere garaian elkarlan egitasmo bat aurrera atera zen eta jendeak ondo erantzun zuen. Horren ondorioz ikastaroak antolatu ziren, besteak beste. Orain helburu bera duen beste egitasmo bat aurrera ateratzeko lanean gabiltza. Bestalde, industrialde bakoitzaren barruan elkarlana ematen da. Mugitegin bizilagun elkarte modukoa dute. Hemen, berriz, lan taldea sortu da. Lapurreten kontua da gehien kezkatzen gaituen gaietako bat eta irtenbide bateratua lortu nahi dugu. Badakite elkarlanak fruituak ematen dituela.

Jon Luqui: "Goierri Behean beste antolaketa eredu bat jarraitu dute, ondo aztertu beharko genukeena"

Urola Garaiko Garapen Agentzia (Uggasa) Mankomunitateak sortu zuen 1994an. Urte hartan bertan onartu zen lehen plan estrategikoa. 2000. urtetik hona, Jon Luqui urretxuarra da kudeatzailea. Berarekin hitz egin dugu Uggasaren zereginez eta Urola Garaiaren etorkizunaz.



Jon Luqui, Uggasak Zumarragako Euskadi plazan duen egoitzan.

Nolatan sortu zen Mankomunitatea?

Eskualde mailako hainbat erakunde daude, baina hasiera-hasierakoa Mankomunitatea da. 1988. urtean sortu zuten Ezkio-Itsaso, Legazpi, Urretxu eta Zumarragako udalek. Helburua hainbat zerbitzu hobetzea zen. Garai hartan, udan ur-hornidura arazoak izaten ziren, suhiltzaile bolondresak besterik ez zegoen, zaborrak nola hala jasotzen ziren...Eskualde mailatik, baliabideak bilduz, gauza horiei aurre egin zitzaien, besteak beste.

Zergatik da Urola Garaia mailakoa eta ez Goierri mailakoa?

Beti entzun izan dut hau Goierri dela, baina lau herri hauei izaera politiko berezia emateko erabakia hartu zuten garai hartako agintari politikoek. Horrek denborarekin hainbat bitxikeria ekarri ditu. Zaborren gaia Mankomunitatearena zen, baina Sasieta sortu zenetik hemengo alkate eta zinegotziak Beasain aldera joaten dira gai hau lantzera. Lurralde antolaketari dagokion Lurraldearen Zatiko Plana Goierri mailakoa da, Eusko Jaurlaritzak egiten dituen estatistikak maila berean egiten dira... Azken batean, zenbait gaitan, lurralde maila anitzetan murgilduta gaudela esan genezake. Eta kontuan hartu behar da udalak ere asko sendotu direla 1988tik gaur arte.

Zatiketa hau ona ala txarra izan dela uste al duzu?

Ona edo txarra izan den esatea ez dagokit niri. Ikuspegi tekniko batetik, Mankomunitateak bere eginbeharrak ondo baino hobeto burutu zituela iruditzen zait. Gainera, gainontzeko eskualde mailako erakundeen sorreran, Uggasa, Urola Garaiko Fundazioa-UGLE eta baita Lenburren kasuan ere, bere partehartzea funtsezkoa izan zen. Garbi dagoena zera da: dagoeneko 20 urte pasatu direla eta denbora honetan, eskualdeko garapenari dagokionez, gauzak erabat aldatu direla, bai gure barruan eta baita kanpora begira ere. Eta zentzu horretan, zenbait erronkaren aurrean gure lanaren berezko esparrua Goierri osoa izan daitekeela uste dut. Goierri Behean beste antolaketa eredu bat jarraitu dute, ondo aztertu beharko genukeena. Bertan ez dituzte erakundeak bikoiztu eta, enpresa anitzen laguntzarekin gainera, guztiek dakite zein den bere lana, denon zioa bakarra izanik: eskualdearen garapena. Agian, ildo horretatik jo beharko genuke guk geuk ere.

Zergatik diozu hori?

Batzuetan, etengabeko hausnarketan gaudela iruditzen zait, erabakiak hartu gabe eta lehentasunei aurre egin gabe. Eskualdearen tamaina txikia da oso, baina hainbat erakunde dauzka sortuta eta martxan. Baina nora doaz? Sarritan, lidergo tinkorik gabe, bakoitza bere aldetik doala dirudi.

Uggasako kudeatzaileak horrela hitz egitea deigarria da.

Argi geratu dadila ikuspegi tekniko batetik ari naizela. Mankomunitatea edukirik gabe gelditu dela esaten da, eta Uggasak enpresetara zuzendutako hezkuntza eta turismoa galdu zituenetik indarra galdu duela ere bai. Agian egia izango da. Baina beste gauza bat ere egia borobila dela diot: toki guztietan langileen profesionaltasun maila eta gauzak ondo egiteko borondatea oso altua da. Eskualdeak baliabide anitz ditu eta zenbait erronkari aurre egiteko beharra ere bai. Ados. Gu baliabide horietako bat izanik, datozela helburuak bai, baina baita baliabideak eta antolaketarako erabakiak ere.

Nolatan sortu zen Uggasa?

1994an sortu zen, Gipuzkoako gainontzeko garapen agentziekin batera. Diputazioak sustatu zituen. Zergatik? Mankomunitateak erakunde lokalak dira eta bertan eskualdeko zinegotziek parte hartzen dute. Organo politikoak dira erabat. Garapen agentziak elkarte anonimoak dira, besteak beste, kudeaketa errazteko eta enpresa pribatuen partaidetza lortzeko. Hala, Uggasaren sorreran, partaideak Mankomunitatea, Orbegozo Fundazioa, Kutxa, Caja Laboral eta Patricio Etxeberria ziren. Mankomunitateak %80 zuen eta gainontzekoek %20.

Zertarako sortu zen Uggasa?

Helburu nagusiak eskualdearen garapen sozio-ekonomikoa lortzea eta herritarren bizi-baldintzak hobetzea dira. Horretarako tresnak, enpresen sustapena, hezkuntza, ingurumen eta hirigintza azterketak eta merkataritzaren eta turismoaren sustapena ziren. Gainontzeko tokietan bezala, garapen agentziaren lan esparrua oso zabala zen. Horretaz gain, ia agentziarekin batera Urola Garaiko Plan Estrategikoa onartu zen.

"Etengabeko hausnarketan gaudela iruditzen zait, erabakiak hartu eta lehentasunei aurre egin gabe"

Plan hartan jende askok parte hartu zuen. Helburuak finkatu ziren eta gehienetan erantzukizuna Uggasarena zela ageri zen.

Zein izan da Uggasaren ibilbidea?

Bi etapa desberdin bereziko nituzke. Hasieran, Uggasak formazio alorrean Europak dirulaguntza asko ematen zituela ikusi zuen eta horretara jo zuen. Garai hartan Uggasa oso ezaguna egin zen enpresen artean, etengabeko formazioa eskaintzen zuelako. Era berean, promozio turistikoa landu zuen, Antioko baselizaren inguruan batik bat. 2001. urtetik aurrera, ordea, enpleguaren inguruko gaiak, ekintzaile berriei laguntzak, ingurugiroa, merkataritza... jorratu dira batik bat.

Zein izan da agentziaren ekarpen nagusia?

1994ko Plan Estrategikoak adar asko zituen, eta zenbaitetan, Uggasa zen jardueren sustatzailea eta arduraduna. Kontuan hartu behar da, garai hartan, Legazpiko Sortu2 bulegoaz aparte, Mankomunitatea eta Uggasa besterik ez zeudela. Eta dirulaguntza dezente ekarri zituzten eskualdera bien artean. Uggasa aitzindaria izan zen enpresekin harreman estuak lortu zituelako edota eskualdean turismoa sustatzen hasi zelako. 1996tik aurrera beste erakunde batzuk sortu ziren eta eskualdeko Plan Estrategikoa indarrik gabe geratu zen. Guztiek, udalek eta erakundeek, bakoitzak bere aldetik jo zuten.

Formazioa Uglek hartu zuen.

Plan Estrategikoa egin zenean, formazioaren alorrean behar handia zegoela ikusi zen. Baliabideak eta aukerak aztertu ondoren, Mankomunitatetik, erakunde publikoen, enpresarien, La Sallekoen eta beste zenbaiten laguntzarekin, eskualde mailako eskola profesionala irekitzea pentsatu zen. Eskualde mailan inoiz hartu den erabakirik onenetarikoa izan dela esan dut beti.

Turismoa, berriz, Lenburren eskuetara pasatu zen.

Legazpi mailan sortu zen eta Mankomunitateak lagundu egin zuen. Egitasmoa serioa zen, baina ordurako Uggasak eskualde mailako turismoaren promozioa sustatzen zuen. Teknikari bat zegoen horretarako: Hiru Tenpluen Ibilbideaz arduratzen zen, besteak

beste. 2000. urtean turismoaren sustapenaz Lenbur arduratu behar zela erabaki zen. 2001. urtetik hona eskualde mailako bulegoa Lenburrek du. Gauzak paraleloan egin dira. Uggasak hezkuntzaren bitartez zuen lotura enpresekin eta turismoa, berriz, bere erakusleihoa zen. Garapen agentziaren langile gehienak formazioaren alorrekoak zirenez, birziklatu egin behar izan ziren. Enplegu bulegoak antolatu ziren eta enpresa berrien sustatzaileei laguntzea erabaki genuen. Merkataritzaz ere arduratzen gara, emakumezkoen eta gizonezkoen

"Baikorra naiz, baina Urola Garaian azken 15 urteetan egin ez dena egin behar da: etxea ondo antolatu"

arteko berdintasuna ere landu dugu... Dena den, agian, itxuran behintzat gihartsua zena oso ahul gelditu zen.

Zer diozu Ugisaz, Urola Garaiko Industrialdeaz?

Eskualde mailako erakundea da, baina ez du zerikusirik Mankomunitatearekin. Jabegoaren %51 Jaurlaritzarena da, %22 Aldundiarena eta %22 bakarrik lau udalena. Berarekin harreman estua dugu betidanik eta elkarrekin lantzen ditugu enpresekin loturiko hainbat gai.

Plan Estrategiko berria eskatu behar duzue.

1994ko eskualdeko Plan Estrategikoa ez da berritu, inork ez du kontrolatu zer egin den eta zer ez... Goierrin, berriz, bost urtez behin berraztertzen dute. Han ez dago Mankomunitaterik; garapen agentzia, eskola profesionala eta gainontzekoak biltzen dituen erakunde bakar bat baizik. Erakunde horretako buruek (politikoek, teknikoek eta enpresek) jarraipen zintzoa egiten dute eta ez dute inongo arazo politiko edo teknikorik. Gure atzetik sortu ziren eta orain gure oso aurretik daude. Agian lo hartu badugu ere, egitasmo estrategiko bat egitea erabaki dugu Mankomunitateak eta Uggasak. Aurten izan nahi dugu eskuartean. Bestalde, arduradun politikoek hemen dugun hau guztia nola antolatu erabaki behar dute.

Zeintzuk dira Plan Estrategiko berriaren erronkak?

Eduki aldetik, diagnostiko baten ostean, eskualdearen etorkizuneko lehentasunak zehaztu beharko ditu epe ertainera begira. Eta, noski, erronkei nola, zeinen bitartez eta zein baliabiderekin aurre egingo zaien zehaztu beharko da.

Hemengo enpresak eskualdean benetan inplikatuta al daude?

Eskualdeko zenbait erakundetan parte hartzen dute, baina ez dute eskualde mailako foro zehatzik. Hortxe dugu, agian, benetako beste erronka bat.

Herritarrei eta elkarteei ere ez al litzaieke Urola Garaia mailako egitasmoetan parte hartzeko aukera eman beharko?

Bai, baina horretarako diagnostiko txukuna eta bilerak dinamizatzeko metodoa behar dira. Parte hartzea eta benetan lan egitea ez dira gauza bera. Dena den, gaien arabera, lan taldeak sortuko



Argazki hau eta azaleko guztiak: Gotzon Aranburu.

dira, non herritarrek nahiz erakundeek parte hartuko duten, noski.

Hau guztia esan ondoren, nola ikusten duzu Urola Garaiaren etorkizuna?

Etorkizunean gauza asko gertatuko dira eta, seguru aski, onak izango dira. Baikorra naiz baina burua erabili behar dugu eta gure aukerei etekina atera behar diegu. Burutapen estrategikoan erabakitzen denaz aparte, beste erronka bat eskualdearen berrantolaketa da eta interes politikoa baldin badago, lortu daiteke. Ikuspegi orokorra izan behar da eta Urola Garaiatik harago ikusi. Ez zait iraultzailea iruditzen zenbait gauzatan Goierri mailaz hitz egitea, horrek Gipuzkoa eta Euskal Herria mailan aukera handiak emango baitizkigu. Baikorra naiz bai, baina azken 15 urtetan egin ez dena egin behar da: etxea ondo antolatu.

Otamotz.com atari digitaleko edukirik klikatuenak

ALBISTEAK

1. Ez naiz goierritarra.
(Igor Susaeta. Iritzia / 12-20)
2. Zumarragako kultur etxea eta irisgarritasuna.
(Eiluz. Erreportajeak/ 12-22)
3. Urretxuk urtarrilaren 16an bozkatuko du fusio estrategia.
(12-28)
4. Begirale ikastaroko partaideak oporretan.
(Nerea Alustiza. 12-16)
5. Asier Serrano idazlearekin solasean gaur arratsaldean.
(12-18)
6. Urte berri hasiera jendetsua Irimon.
(01-01)
7. Negu partean ere bertso eskolakoak sasoian.
(12-22)
8. Bertsotan agurtuko dute 2007a helduen bertso eskolako hainbat kidek.
(12-28)
9. 18/98 prozesuaren aurrean Olentzero ere ezinean.
(Amaia Iturriotz. Kultura / 12-24)
10. Euskara? Bai, noski! Administrazioan?.
(Inma Albisua eta Arantxa Iraeta. Iritzia / 12-27)

BIDEOAK

1. Jonatan Terron Euskadiko judo txapelketan.
2. Urte amaiera Izazpin.
3. Gizon-probaren errebantxa.
4. Bertsolari gazteak (II).
5. Bertsolari gazteak (I).
6. Zumarragako kultur etxea eta irisgarritasuna.
7. Luzio Gabiria jaialdia.

ARGAZKIAK

1. Ikastolaren Gabonetako kalejira.

ALDIZKARIA

1. Maite Janeirori elkarrizketa (Zuek bai jakin!/132. alea).
2. Macrea Clarke (Boteprontoan/132. alea).
3. 1986ko Urola futbol taldea (Argazki zaharra/132. alea).

INKESTAK

Nola bizi dituzu Gabonak?

Opor-egunak: %82
Opariak jasotzeko sasoia: %13
Fedearekin lotzen dut: %5

Errekako ahateen populazioa kontrolatu behar al litzateke?

Bai, gaurtik hasita: %42
Bai, baina oraindik ez dut beharrik ikusten: %40
Ez, bere horretan segi dezatela: %18

egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal

Bolondresak

Boluntarioa: "*Bere borondatez, trukean dirurik jaso gabe, gizarte-lanean aritzeko bere zerbitzuak eskaintzen dituen pertsona, betiere modu antolatuan eta sistema baten barruan jardunez*". (Euskalterm Hiztegi Terminologikoa)

Definizio horren lehenengo esaldiarekin bat gatoz gu. Ez hainbeste bigarrenarekin, 'sistema' terminoak esanahia lausotzen duelako. Berdin du. Aurreneko zatia soilik hartuko dugu aintzat. Boluntario. Edo bolondres. Trukean dirurik jaso gabe, gizarte-lanean aritzen den pertsona. Bolondresak. Voluntarios. Halaxe du izena Zumek plazaratutako liburu berriak.

Liburua osatu duten profesionalen lana eta bere orrietan agertzen diren talde askoren eguneroko esfortzua gutxietsi gabe, aitortu beharra dugu argazki batzuk ikusteak harritu egin gaituela. Eta beste batzuk txantxarako bide eman digutela. Gipuzkoako bertsolari maitatuenetako bat hiruzpalau argazkitan azaltzea normala da, mila saltsatako ali-olia delako, eta trukean ezer gutxi jasotzen duelako, adiskideen omenaldi xumeak izan ezik. Beste herritar askoren presentzia ere bidezkoa da, baina badira jokoz kanpo harrapatu gaituzten batzuk. Inor mintzerik nahi ez dugunez, ez dugu izenik emango, baina boluntario-lanarekin baino, hobby edo zaletasunekin lotura handiagoa duten adibide ugari daude, eta logika horri jarraiki, edozein kolektibo sar daiteke zerrendan, baita igande eguerdietan pirulo inguruan kotxekapota konpetizioa egiten duten gurasoena ere.

Argazki galeriatik kanpo geratu direnak ere asko dira. Inor ahazterik nahi ez dugunez, ez dugu izenik emango... tira, bai. Boluntario ugari ari dira triunfadore izateko gazteei zer egin behar ez duten erakusten, musutruk, baina modu oso efektiboan. Eta oraindik inork ez die esker onik adierazi. Ezta kalitatearen Q Ziurtagiririk eman ere.

Inauteriak atsegin al dituzu?

Zein mozorro duzu gustukoen?

Mari Carmen Segurola

Ez zaizkit Inauteriak gustatzen, sekula ez baititut bizi izan. Nire alabei, aldiz, ikaragarri gustatu izan zaizkie. Egia esan, Inauteriak iristen ziren bakoitzean erotu egiten ninduten. Gure garaian ez ziren Inauteriak ospatzen.

Mari Carmen Rejano

Ez zaizkit Inauteriak gustatzen eta mozorrotzea ez dut gogoko. Orain, haurrekin, urtero tokatzen zait. Gogorra izaten da. Ea lehenbailehen pasatzen diren eta eguneroko martxara itzultzen garen!

Josu Mendia

Asko gustatzen zaizkit eta urtero Tolosara joaten naiz igandetik asteartera. Txaranga batean jotzen dut eta elkarteetan bazkaldu eta afaltzen dugu. Ama hangoa zenez, betidanik joan izan naiz. Mozorroei dagokienez, guztiak atsegin ditut.

Iñigo Aztiria eta Mikel Muñoz

Ez zaizkigu asko gustatzen. Tolosakoak politak dira, baina hemengoek ez dute grazia handirik. Dena den, mozorrotzen gara, baina ez dugu burua gehiegi nekatzen... Txanoa jarri... eta aurrera!

bota bertsoa!

Bertso hauek, eta laugarren bat, musikatuta entzun daitezke otamotz.com atarian eta bertso eskolaren zubertsotan.net orrian.

Gaia: Iragan urteko elurrak

Doinua: Noiz hasi ote zen dena...

Gorka Ojanguren

Iragan urteko elurrak
utzi zigun irudia:
goiko zeruaren beltza
beheko lurraren zuria,
tartean mundu txiki bat
beldurti ta urduria.
Izoztutako zubia
dugu orain memoria,
atzean utzi ezin dena
ixten ez bada zauria.
Asmo onez bete arren
esperantzaren gurdia,
bidea nola zabaldu
ahaztu egin zaigu ia.

Gauzak hemen hala dira:
lar bero edo lar hotzak
tarteko hotzberorikan
ez dauka gure bihotzak,
atzerrian ezagunak
bertakoentzat arrotzak.
Joandako bake hotsak
estaki zitun izotzak,
geroztikan hertz hautsi bat
dauka urtaro bakoitzak;
esperoan gaudenontzat
legeak beti zorrotzak,
neguak luzeegiak
ta udaberriak motzak.

Estaltzen gaituenean
elurraren ukenduak,
une batez ederrrago
dirudi gure munduak
segunduak ordu dira
ta orduak segunduak.
Baina ezin leunduak
gure ezin konponduak
zuri beltzez jazten ditu
herri honen abenduak
plazak argiz apainduak
ta zeruak ilunduak,
elurrak lurrean eta
airean pentsamenduak.

iritziz iritzi

Joxe Manuel Bereziartua

Gabonak gustatzen zaizkit

Gogoan dut txikitan ama zenaren baserrian igarotzen genituela osaba, izeba eta lehengusuekin. Asteasu oso polita egoten zen abenduko azken egunetan. Arratsalde osoak ematen nituen sutondoan artaburuak aletzen, izeba Anastaxiren kontuak entzuten eta tarteka "ekonomikaren" suari begira. Oroitzen ditut On Hipolito Usabiaga erretorearen meza "telegrafikoak", eta aldarearen aurrean jartzen zuten "naximentua" ere. Irudi haiek, elizako argiak, baserriko sukaldean jartzen genuen pinuarenak, "Pasus Enea" tabernan jartzen zuten arbolarenak... Nire ume garaiko "aluzinazioak" bezala gordetzen ditut, eta dena LSDrik gabe. Nire haurtzaroko oroitzapenen artean gabonetakoak dira psikodelikoenak, eta denek daramagunez haur bat barruan, heldutasunean ere mantendu egiten dira ukitu psikodeliko haiek. Gabonak gustatzen zaizkit, zer egingo zaio bada. Bestalde, jende askok esaten du hipokresia eta kontsumismoa dela nagusi sasoi horretan, eta horregatik gorroto dituela Gabonak. Ados nago hipokresia eta kontsumismoari dagokionean. Ez dut uste, dena den, bi gaitz horiek gehiegi ugaltzen direnik Kristauen Jesusen etorrerarekin. Berau Aste Santuan hiltzen dutenean ere, ez gara etxean arrosarioa errezatzen gelditzen. Galdetu bestela Luz Ardiden edo Baqueira Bereten. Hipokresia eta kontsumismotik urtean zehar ere nahikoa izaten dugu.



Hiner Saleem

Nire aitaren fusila

Entziklopedia batek nahikoa ditu lau lerro Kurdistani buruzko azalpenak emateko. Siriako, Iraneko, Irakeko eta Turkiako hainbat lurraldetan zehar barreiatutako herrialdea omen da. Bertan kokatzen du Hiner Saleem zinegile eta idazle kurduak bere haurtzaroari eta nerabezaroari buruzko kontakizuna, J.K. Igerabidek *Nire aitaren fusila* izena eman diona. Saddam Hussein Irakeko agintari izan aurreko garaian hasten da. Kurduek euren lurraldetasuna lortzeko esperantzak izandako bilakaera kontatzen du. Saddam-engan izandako konfiantza abiapuntutzat hartu eta, AEB zein Errusiako gobernuen erabakien esperoan egon ondoren, etsipenera iritsi bitarteko ibilbidea. Gizarteak eskainiko dizkion aukeren artean hautatu beharko du protagonistak: aitaren fusila hartu ala ihes egiten ahalegindu.

Xabi Lasa

Robert Wyatt

Comicopera

Denboran atzera egin beharra dago Robert Wyatt (Bristol, 1945) musikari ingelesaren erroetara joateko. 60ko hamarkadan Canterburyko musika eszena aberatsean erreferentziazko musika kolektiboa izan zen Soft Machine, eta talde horretako kidea (bateria jotzailea) Wyatt. Psikodelia, art-rocka, jazz-rocka, progresiboa... 70eko hamarkadan istripu larria izan zuen Wyattek. Gurpildun aulkian da geroztik. Baina, haren musika ibilbidea ez zen eten. Are indar handiagoz ekin zion sorkuntzari eta soinu desberdinen ikerketari. Lau urteko isiltasunaren ondotik Comicopera (Domino) lana argitaratu zuen iaz, Shleep (1997, Thisty ear) eta Cuckooland (2003, Hannibal) disko ederren lan-talde berarekin: disko luzea da, jazza eta popa modu bitxi eta askean uztartzen dituena.

Gorka Erostarbe





Christopher Zalla

Padre nuestro

Christopher Zallak haurtzaroa leku ezberdinetan igaro zuen. Lurralde arrotzetan beti, arrotz bezala ikusia bertokoengatik. New York izan da Zallaren azken geltokia, bertan lehen aldiz bertokoa dena sentipena izan du. Hiriak World Trade Center-eko gertaera bizi izan zuen bera iritsi bezain pronto. Laguntza lanetan parte hartu zuen eta sentitu zuenak bultzatu zuen film hau egitera. New York-era trailer batean heldu diren bi gazte mexikar bizimodu berrira nola moldatzen diren kontatzen du. Etorkin mexikarren auzo itsusietan egunero bizitza defendatzea da legea. Kontatzen diren gertakariak ilunak dira. Zintzotasuna eta maltzurkeria guztion barruan dauden altxorra eta madarikazioa dira. Filmak gaiztoen eta zintzoen arteko ustezko muga hori lausotzen du. Ostiralean Zelai Ariztin izango da ikusgai.

ButaK 21 zineklub taldea



Hona hemen Urretxuko jaietan gogor lan egin zuen lagun taldeari omenaldi txikia.

Jose Luis Garmendia

Elkarrizketa osoa eta argazki gehiago www.otamotz.com atari digitalean.

Iñaki Etxezarreta: Euskal Herriko ikastolen zaindaria

Inaki Etxezarreta urretxuarrak bizitza ia osoa darama ikastolen mugimenduan. Irakasle-ikasketak egin zituenean oso argi zuen horietan lan egingo zuela. 70eko hamarkada erdialdean Urretxu eta Zumarragako ikastolan hasi zen eta 24 urte besterik ez zituela zuzendari jarri zuten. Egun Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioko zuzendaria da.



Iñaki Etxezarreta, bere etxe ondoan, atzean Urretxu-Zumarraga Ikastola duela.

Non jaio zinen?

Urretxun jaio, Zumarragan urte mordoa bizi izandakoa eta Urretxura itzulitakoa naiz. Grupo Santa Barbara eta Altamira baserriaren artean dauden bi etxe bloke horietako batean jaio nintzen, 1955ean.

Zein familiatan jaio zinen?

Bi anaia besterik ez gara. Aita ezkiotarra zen eta ama Zumarragakoa, baina bere familia jatorriz Itziarkoa da. Etxezarreta gehientsuenek baserria utzi eta kalera etorri ziren 50eko hamarkada inguruan, industrializazioaren giro horretan. Gehienak lantegietan hasi ziren, baina osaba zaharrenak Julian taberna ireki zuen. Aita Aparizionen hasi zen eta gero Orbegozon sartu zen. Gauez ikasi eta egunez lan egiten zuen.

Urretxun eta Zumarragan bizi izandakoa zarela esan duzu.

Ni Urretxun jaio nintzen, baina gero

Legazpi auzunera joan ginen. Ezkondu nintzenean Urretxuko Barrenkalen jarri nintzen bizitzen. Urretxukoa eta Zumarragakoa sentitzen naiz. Ezkio ere barruan daramat. Oso ondo ezagutzen dut, aitarekin urte asko eman baititut mendian eta ehizean. Ezkondu eta gero bi urte eta erdi eman genituen Donostian, baina ez ginen egokitu eta itzuli egin ginen. Aukera ona egin genuen. Beste bikote batekin etxea egiteko aukera izan genuen eta oso ondo moldatu gara.

Non egin zenituen ikasketak?

Zorte izan nuen: auzoko beste neska eta mutikoekin batera Hiri Lorategian zegoen haurreskolara joan nintzen. Orain buru osasun zentroa dagoen tokian zegoen. Sei urte nituenean La Salle-Legazpi eskolara joan nintzen. Nirea Urretxuko institutuko lehen promozioa izan zen. Gero maisutza ikasi nuen Gasteizen. 40 urte pasatxo izan arte jarraitu dut ikasten. Eskolako formazio reglatuaz gain, lanbidean ere ikastea tokatzen da. Bizitza osorako ikasketak ez dira egiten, bizitza osoan ikasi behar da. Teknologia, zientzia, bizitza soziala, enpresa... aurrera doazen neurrian, gero eta gehiago exijitzen da egunean egotea eta jakin-mina izatea. Bizitza egoki baten gakoak dira.

Nola oroitzen duzu zure haurtzaroa?

Bizitza oso ezberdina zen. Ni kalean eta baserrian hazitakoa naiz. Amaren aldeko baserrian, Leturiondon, denbora asko eman nuen. Bestalde, kalean asko ibilitakoak gara. Orduan ez zegoen trabarik eta trafiko gutxiago zegoen. Gurasoek Galeperra elkarteko taberna izan zuten eta garai hartan Zumarragako erdigunea ezagutu nuen. Abertzale giroa ezagutzea tokatu zait, baina baita erdalduna ere. Biak oso gertu izan ditut. Eskolan erdalduna bakarrik ezagutu genuen. Familiak euskal giroa gorde zuelako eutsi genion geure senari. Kalean bizi ziren askok euskara galdu zuten eta ondo ulertzen dut. Bizi izan ez duenak nekez ulertzen du.

Aldaketa handia nabaritu al zenuen Gasteizera joan zinenean?

Garai hartako Gasteizek eta egungoak ez dute zerikusirik. Ordukoa herri handi bat zen. Denek elkar ezagutzen zuten. Apaizez, mojez eta militarrez betea zegoen. Han egin genituen lagunak Mirandakoak, Gasteizekoak edo Errioxakoak ziren, guztiak erdaldunak. Arrotz sentitzen ginen, baina oso urte gutxiren buruan aldaketa handiak gertatu ziren. Valladoliden-eta eskaintzen ziren ikasketa asko Gasteizera eraman zituzten eta eskolak ikasle euskaldunez bete ziren. Bestalde, fabrikak ugaltzearekin batera, langile kontzientzia esnatu zen. Eusko Jaurlaritza sartzearekin batera, erabat transformatu zen.

"Oso ondo etorri zitzaigun Gasteizko giroa ezagutzea, Euskal Herria Gipuzkoa baino zabalagoa dela ikusteko"

Gasteiz inguruko ikastolak ere ezagutuko zenituen.

Oso ikastola ezberdinak ziren, sortzez eta bilakaeraz. Irakasle ikasketak egitera joan ginenean, oso argi genuen zer nahi genuen. Ordurako hemengo ikastolarekin harremana genuen eta ikastola irakasle bihurtzera joan ginen. Oso ondo etorri zitzaigun Gasteizko giro hura ezagutzea, zenbait gauza erlatibizatzeko eta Euskal Herria Gipuzkoa baino zabalagoa dela ikusteko. Hori ikastolen mugimenduaren bitartez ere ikusi dut. Mugimendu anitza da, gizarte honen isla. Euskal Herria ez da bakarrik euskaraz hitz egiten duen hori, askoz ere anitzagoa da eta askotan ahaztu egiten zaigu. Sakoneko euskalgintza eta efizientea egin nahi bada, denetik ikasi behar da.

Nolakoak izan ziren zure lehen urteak ikastolan?

1975eko irailean hasi nintzen. 19 urte nituen, 20 betetzeko. Sartu nintzenean ni baino irakasle zaharragoak zeuden, baina zaharrak ziren irakasle haiek 30 urtetik gorakoak ez ziren. Agure koadrila iruditzen zitzaidan. Han zeuden gizonezko gehientsuenak seminariotik pasatakoak ziren. Kontraste handia zegoen, gehientsuenok euskal jatorrikoak baginen ere. Gure belaunaldiaren eta aurrekoaren artean alde handia zegoen: ikuspegi ideologikotik, euskara ikasteko moduan... Hori ona izan zen, bai haientzako eta bai guretzako ere.

Nolakoa zen 70eko hamarkada erdialdeko ikastola?

Urretxu-Zumarragako ikastolak bere historia du. Nekez ulertu daiteke, Pasiotarrek herri honetan izan duten rola begiratu gabe. Gerra osteko garai gogor haietan, Pasiotarrak gerra galdu zutenen gotorlekua izan ziren. Lau horma

1959: Iñaki Etxezarreta, eserita ezkerretik bigarrena, Hiri Lorategiko eskolako ikaskideekin.

haiek hizkuntzari, kulturari eta harreman politikoari babesa ematen zioten. Bestalde, jende euskaltzalea ikuskizunetan biltzea lortu zen. Euskaltzaleen masa kritikoa sortu zen eta horrek ikastola izango zen lehen kimua eman zuen. Horretarako, jendea eta eraikina zeuden. Fraideek, etxea emateaz gain, legalizatzeko bidean erraztasunak eman zituzten. Irakasle formatuak, herri indarra, euskaltzale ospea eta elizak ematen duen babesa zuten.

Nolakoa izan zen Urretxu eta Zumarragako ikastolaren bilakaera?

Gizarteak eskatzen zuenari erantzun behar izan zion eta hainbatetan sekulako gatazkak izan ziren. 1969 inguruan giro politikoa oso ozpinduta zegoen eta tentsio handiak izan ziren. Hemengo ikastola euskara batuaren kontra zegoen eta 1975 arte ez zuen posizio hori aldatu. 1976an elkartu zen ikastolen elkartera. Aldatzen eta egokitzen jakin zuen. Bestalde, oso integratzailea izan da. Gipuzkoako ikastola gutxik eskolatu zituzten horrenbeste ume erdaldun. Ikastolaren nortasuna ere kolokan jarri zen guraso erdaldunen seme-alaba kopurua besteena baino handiago zelako. Hemen ezagutzen den mestizaiak ikastolan du sorgunea. Bestalde, Urretxu eta Zumarraga ere batu ditu.

Zer eskola eman zenituen irakasle lanetan hasi zinenean?

Eskolatze arazoak zituzten neska-mutikoekin hasi nintzen. Horrekin batera, itzulpenak eta euskarazko materialak egin nituen. Hurrengo urteetan taldeen ardura izan zuen. Ondoren, talde berezietara itzuli nintzen. 80. urtean zuzendaritza hartu nuen.

Fraideen ondorengo lehen zuzendaria izan al zinen?

Hala da. Gorri ospea nuen eta ni izendatzeko arazoak izan ziren. Gainera, oso gaztea nintzen: 24 urte besterik ez nituen. Denok leialtasun handia erakutsi genuen. Ikastolak kudeaketan aldaketa behar zuen, herrikoitasunean sakondu beharra zuen... Oso lehendakari ausarta zegoen, Jexux Alberdi, eta sekulako babesa eskaini zidan. Pasiotarrek utzitako hutsunea herritarrek bete behar zuten eta gurasoen babes handia topatu nuen. Bestalde, irakasle taldearen laguntza ere handia izan zen. Sekulako apustua egin zuten pedagogia aldaketaren alde. Gainera, urte haietan Pasiotarrekin akordioak lortu ziren, espazio beharrari erantzun zitzaion eta Lizeoa ireki zen. Horrez gain, lehenengoz hauteskunde batzuen ondoren sortutako Udalarekin lan egin genuen. Juanito Arbizu eta Jose Luis Ruiz ziren alkateak eta laguntza handia eskaini ziguten. 80ko hamarkada aberatsa izan zen. Ez dago gaur egungo

"Gorri ospea nuen eta ni Zumarraga eta Urretxuko Ikastolako zuzendari izendatzeko arazoak izan ziren"

Urretxu eta Zumarraga ulertzerik ikastolaren ekarpenik gabe. Ikastola beste eskolak euskalduntzeko akuilurik handiena izan zen. Matrikulazio handia genuen eta ia 40 ume utzi behar izan genituen mojetan. Horren bitartez hasi zen lehen euskal adarra mojetan. Bestalde, orduko Juan XXIII eta Zelai Arizti ikastetxeetako irakasleen euskalduntzea ikastolan egin zen. Ikastolak hartu zuen herritik, baina asko eman zion herriari.

Noiz utzi zenuen zuzendaritza?

1988an. 1986an aldaketa politiko gogorra izan zen. Hauteskundeak alderdi sozialistak irabazi zituen lehenbiziko aldiz. Lehendakaria ez zen sozialista izan, baina Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza saila euren esku gelditu zen. Dirulaguntzak lotu gabe genituen eta alderdi sozialistaren lehen lana ikastolak motzean lotzea izan zen. Sekulako krisia bizi izan zen ikastolen mugimenduaren barnean. 1986tik 1988ra sozialistekin egin ziren negoziaketen ardura eraman nuen. Akordioa lortu genuen. Horrekin ikastolak ekonomikoki eta juridikoki babestuko zituen legea atera zen. Horrek Urretxu uztera eta ikastolen mugimendura dedikatzera eraman ninduen. Negoziazio politikoetan eta sindikaletan hasi nintzen. LAB eta ELArekin negoziatu genuen konbenioa egiteko, ikastolen artean zeuden soldata eta lan baldintza aldeak berdindu genituen, elkartasun kutxa antolatu genuen ikastola pobreenei laguntzeko…

Zein da egun zure lana?

Autoan lan egiten dut, ikastolaz ikastola eta federazioz federazio ibiltzen bainaiz. Ikasturte honetan Euskal Herriko ikastola gehienetatik pasatzen ari naiz. Ezorduetan gainera. Etxera heltzen naizenerako gauerdia izaten da. Askotan asteburuak izorratzen ditut eta baita opor egunak ere. Ikastolen mugimenduak bizitza pertsonalaren zati inportantea jan izan du beti, baina bertan lan egiten dugunok ez dugu inongo errukirik merezi. Gustatu egiten zaigu.

Itzuliko al zara inoiz Urretxu eta Zumarragako ikastolara?

Zaila izango da. Duela sei bat urte eskolak ematera itzultzea pentsatu nuen, baina Konfederazioan lan talde zabala behar da: gazteez eta zaharrez osatutakoa.

1993: Antion, Txomin eta Gloria gurasoekin, Maite emaztearekin eta Garazi eta Edit alabekin.

Nola ikusten duzu hezkuntza Urretxu eta Zumarragan?

Eskaintza hirura mugatu da. Hiru ikastetxe erlijioso izatetik batera pasatu gara eta bi ikastetxe publikotik batera. Bestalde, ikastolak bere nortasuna mantentzen du. Urretxu eta Zumarragako soziologian oreka dago. Zer edo zertaz harro banago, horretaz da: oso gutxik pentsatuko zuten 1966an, ikastola sortu zenean, 40 urte beranduago herriko ikastetxe guztiak euskaldunak izango zirenik. Urretxuko ikastolaren ekarpen handiena hori da. Dena den, ikastolak gehiago garatu beharko luke euskaldun identitatea. Euskaldun identitatea garatzeko eta modernizatzeko dago. Inork hori egitekotan ikastolak egin dezake, daukan eskarmentuagatik.

…

Bestalde, identitate herritarra sakondu beharra du. Ikastetxeak herriaren eguneroko dinamikan gehiago inplikatu beharko lirateke. Ikastetxeak gizarteratzea eta gizartea ikastetxeratzea bilatu behar da. Horrez gain, bere ardura zuzena ez den arren, ikastolari ihes egiten dio Urretxu eta Zumarragak azken urteotan izan duten atzerakada sozioekonomikoak. Ikastolak bere ekarpena egin beharko luke errekuperazioan. Tamalez, ez da asmatu herri hauen garapen ekonomiko eta sozialean. Eskerrak UGLE martxan jarri zen… Dena den, esfortzua egin behar da gure ondorengo belaunaldiek Urretxu eta Zumarragan lan egiteko aukera izan dezaten.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

HARATEGIA URDAITEGIA

✆ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza,labana... zorrozketa

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JavierArratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
✆ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com

Keros
Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 943 72 41 60

DOS
ZUMARRAGA

Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

Lorea

Pinturak - Etxeko apainketak
Lurrindenda - Jostailuak

☎ 943 72 41 90
☎ 615 75 33 28
Fax: 943 03 79 88

Legazpi, 5 - Zumarraga

PLAZAOLA

ITURGINTZA

Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

Lanbroa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 72 36 52

Montajes e Instalaciones Eléctricas
HERCE
Elektrizitate, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

natural optics
URRETXU

Lurdes Rodriguez
Optiko-optometrista

Iparragirre,1-Urretxu
☎ 943 72 59 68
urretxu@naturaloptics.com
www.naturaloptics.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINTZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79

ALTZARIAK
MERKA-UROLA
Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

TABERNA
Iburreta
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

PREMANK
KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9- Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Yarmanki
Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13

belarzain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

BIONA

AROZTEGIA

Altzariak neurrira

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

TXEX-BIROLAK
alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga

Herri Aldizkaria
Otamotz

TOKI APROPOSA DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA JARTZEKO

Iker Telletxea - 647 319 757 - beasain@iragarri.net

1955

Zumarragako parrokiako tiple abesbatza

Argazkian Zumarragako parrokiako tiple abesbatzako kideak ikus ditzakezue, 1955ean. Mutiko hauek Donostiako Gabon kanten lehiaketa irabazi zuten, Aita Donostia abesbatzarekin berdinduta.

Goiko ilaran: Angel Mari Gomez, Miguel Angel Etxaniz, Jose Garmendia, Pello Gartziandia, Ignacio Idigoras, Jose Andueza, Joaquin Pildain (zuzendaria), Vicente Egiguren, Angel Korta eta Joakin Zaldua.

Erdiko ilaran: Jesus Mari Fernandez de Lezea, Santi Zabaleta, Jose Agustin Ibarzabal, Jose Luis Benito, Esteban Txintxurreta, Jesus Mari Monasterio, Manolo Iturralde eta Jose Luis Kerejeta.

Beheko ilaran: Paco Monasterio, Txomin Egiguren, Josetxo Rodriguez, Carlos Egiguren, Ignacio Agirrebeña, Ricardo Madurell eta Fernando Rodriguez.



Jon Iturbe: Herriko rock izarra

Urretxuk eta Zumarragak rock talde garrantzitsu bat eman badute, hori The Hot Dogs da. Taldeko abeslaria Jon Iturbe da, plaza-gizon aparta eta inguruotan ezagutu dugun rock izarrik handiena.

Jon Iturbe, herrian eskainitako kontzertu batean. Argazkia: Gotzon Aranburu.

Nor da Jon Iturbe?

Finean, betidanik mitozalea naizela uste dut. Umetatik mitifikatu dudan hori guztia bilakatu naiz. Pertsonaia bat sortu dut, baina ez da aurreikusia izan. Halakoa naiz eta kitto. Urteen poderioz guztia baretu egiten da eta lehen neurriz gaine-koagoa nintzela pentsatzen dut.

Zeintzuk dira zure mitoak?

Nahiko begi-bistakoa da. Ni begiratzea besterik ez dago. Argi dago zein jende mota mitifikatzen dudan: Keith Richards eta bestelakoak.

Zer edo zer emango al zenuke bera ezagutzearren?

Ez. Berarekin topo egingo banu, ez nintzateke ihesi aterako, baina nahiago nuke berarekin hitz egin beharra izango ez banu. Ezta Jagger-ekin ere. Bestela, zer esan jakin gabe gelditu ko nintzateke eta ergel itxura emango nuke.

Zure aitona aizkolaria zen. Nondik datorkizu halako rock zaletasuna?

Ez dakit. Hau hautatu nuen, baina beste edozer hautatu nezakeen.

Zein da musikarekin lotuta egin duzun zorakeriarik handiena?

Eskenatokian ukondoa hautsi nuen.

Castelló-n izan zen, duela zazpi urte. Bestalde, urtetan hainbat fetitxe bilatu ditut. Rolling Stones taldearen *Jumpin Jack Flash* kantaren single originala, adibidez.

Zeure burua rock izartzat al duzu?

Ez. Ez dut rol hori betetzen. Musika egiteko beharra dut, baina ez naiz musikatik bizi eta ez dut musikatik bizitzeko asmorik. Gauzak asko aldatu dira. Rock izarra izateak ez du lehengo esanahia. Dena den, ez zait gustatzen egiten dudan honi hobby deitzea. Niretzat bizitzan egiten dudan gainontzeko guztia baino askoz ere garrantzitsuagoa da.

Rock izarra izateko ospe handiagoa behar dela uste al duzu?

Bai. Gainera, ez zait asko gustatzen denen ahotan edo denak niri begira egotea. Ez dut halako nabarmentasun beharrik. Ez da hori bilatzen dudana. Hau guztia nire gustuen ondorioa da.

Dena den, Urretxu eta Zumarragako bezalako bi herritan, zure lana, postura eta itxura nabarmenak dira.

Urte hauetan guztietan denetik jaso dut: begiradetatik hasi eta muturrekoetan bukatu. Hasieran min egiten zidan, baina jada 17 urte daramatzat halakoa izaten. Ez diot garrantziarik ematen. Toki guztietan daude ergelak. Ez nau kezkatzen.

Urretxuko eta Zumarragakoak izanik, zailagoa al da zuen lana egitea?

Haizearen kontra borroka egin behar izan dugu, baina hasieratik bagenekien hala izango zela. Bagenekien ez genuela hemen nagusi diren joerak lantzen dituztenek bezain harrera ona izango. Dena den, musika nahiko komertziala egiten dugu. Gure abestiak entzuteko errazak dira.

Zer falta izan zaizue pauso bat gehiago emateko?

Ez dakit. Beharbada, horretarako aukera genuenean banandu ginen. Arrazoi pertsonalak eta profesionalak medio banandu ginen, baina orain planteamendu ezberdina dugu. Buru-belarri jardun nahi bagenu, gure lanpostuak utzi beharko genituzke. Ez dugu nekez bizi nahi, horrek lanaren kalitatean eragina baitu.

Zergatik erabaki zenuten itzultzea?

Banda bilatzea oso gogorra da. Gure arteko ulermena eta harremana ez dugu beste inon aurkituko. Arazo puntualak izan genituen, baina egun gure arteko harremana sekula baino hobea da.

"14 urteko lau gaztetxo elkartzea eta handik 15 urte baino gehiagora elkarrekin jarraitzea benetan harrigarria da"

Taldea sortu zenuten lau lagunak umetatik elkar ezagutzen duzue.

Hori da deigarriena, gure musika edo estetika baino gehiago. 14 urteko lau gaztetxo elkartzea eta handik 15 urte baino gehiagora elkarrekin jarraitzea benetan harrigarria da.

Zer da zuretzat The Hot Dogs?

Beharbada, bizitzan dudan gauzarik garrantzitsuena.

Zein da eman duzuen kontzerturik gogoangarriena?

Bat baino gehiago izan dira bereziak. Villarcayoko Morcilla Rock jaialdian jo genuen lehen aldia oso berezia izan zen. Lehen aldiz 1.000 lagun baino gehiagoren aurrean aritu ginen. Jam aretoan hasierako talde gisa jo genuen lehen aldia ere ondo oroitzen dut, Backyard Babies taldearen aurretik aritu ginen.

Zer asmo dituzue 2008rako?

Maiatza aldean estudioan sartu nahi dugu, laugarren diskoa grabatzera. Behar baino abesti gehiago konposatu eta grabatu behar ditugu. Orain arte beharrezkoak soilik grabatu ditugu eta gero beti dago nahi bezain ondo gelditzen ez den abestiren bat. Horrek diskoari indarra galduarazten dio.

Nork promozionatzen zaituzte?

GP Producciones enpresarekin gabiltza. Ez ginen oso ondo hasi, baina iazko maiatzetik hona guztia asko hobetu da eta oso gustura gaude beraiekin. Nahikoa jo dugu eta sasoian gaude. Udatik hona 20 bat kontzertu eskaini ditugu eta horrek asko animatu gaitu. Taldeko kideok erreleboka lan egiten dugunez, batzuetan, bi astetan ez dugu elkartzerik. Elkartzen garenean, ordea, egunero entseatzen dugu.

Beste zer edo zertan ari al zara?

Spezial Guest eta Apicultors taldeko Pescak eskatuta Two Requirements taldean parte hartu dut. Bere abestietako bati letra jartzea eta kantatzea proposatu zidan. Lau pasa zizkidan, gustatu egin zitzaizkidan eta egitasmoa nire egin nuen, nolabait. Emaitza ona lortu genuen. Ea norbaitek gure lana editatzen duen: www.myspace.com/tworequirements Web gunean entzun daiteke. Bestalde, noizean behin zuzenean jotzeko asmoa dugu.

Gorka Mendia eta Mikel Perez: Bizitza osoa baloi txikiarekin

Urolaren eskubaloi saila 25. urteurrena ospatzen ari da. Urte hauetan guztietan makina bat jokalari pasatu dira taldetik. Batzuek denbora gutxi eman dute eta besteek urte mordoxka. Partida gehien jokatu dituztenen artean Mikel Perez eta Gorka Mendia daude. Perezek 39 urte ditu eta Mendiak 34 baina, duela gutxi hartu zuten erretiroa.

Gorka Mendia eta Mikel Perez, Urola eskubaloi taldeak Zumarragako kultur etxean duen egoitzan

Zenbat urtetan jokatu zenuten Urolan?

Mikel Perez: Jokalari fitxa 17 urtetan izan nuela uste dut. Azken partidak 36 urterekin jokatu nituen. 33 urterekin utzi nuen, bi denboralditan ez nuen jokatu eta ondoren itzuli egin nintzen.

Gorka Mendia: Niri aurten utziarazi didate. 14 urterekin hasi nintzen, baina denboraldi batean edo bestean kale egin dut. Urte batean Arraten egon nintzen, baita Ormaiztegin ere, eta beste urte batean ez nuen jokatu. Iazko denboraldian eskubaloian hasi nintzenean oraindik jaio gabe zegoen mutil batekin egon nintzen taldean. Dena den, Mikelek meritu handiagoa du: urte askotan jokatzeaz gain, entrenatzailea izan da. Urola izan nuen lehen entrenatzailea izan zinen.

M.P.: Garai batean lehen taldeko jokalariek jubenilak edo kadeteak entrenatzea ohikoa zen.

Gogoratzen al duzue nolatan animatu zineten eskubaloira jokatzera?

M.P.: Roman izeneko La Salle-Legazpi ikastetxeko maisuaren bitartez hasi nintzela uste dut. OHOko zortzigarren mailan ikasten ari nintzen. Ondoren Goierri taldera pasatu nintzen eta honen eskubaloi saila desagertu zenean Urolara. 17 urtetik 33 urtera atsedenik gabe jokatu nuen.

G.M.: Gu ikastolan hasi ginen. Urolak bi ikasle ohi bidali zituen, Joseba Guridi eta Joseba Etxeberria, mutikoak lortzera. Futbolean baldar samarrak ginenok eman genuen izena. Nire klasean ia denok. Urte hartan hasi ginenon %80k hogeita hamar urte pasatxo izan arte jarraitu dugu.

M.P.: Urolak koadrila gutxi batzuei esker egin du aurrera. Eskubaloiak ez ditu futbolak bezainbeste zale eta ez da hautaketarik egiten. Datozen guztiak hartzen dira. Koadrilan etortzen dira. Azkenean, koadrila horiek guztiak bat egiten dira.

Urolan hasi aurretik elkar ezagutzen al zenuten?

G.M.: Biok Eitzagakoak gara! Gure belaunaldiko jokalari asko bertakoak ginen.

M.P.: Eitzaga jokalari gehien eman dituen auzoa da.

Asko aldatu al dira gauzak zuek hasi zinetenetik?

M.P.: Lehen giro hobea zegoen jokalarien artean. Entrenamenduen ostean hitz egiten gelditzen ginen eta asteburuetan elkarrekin bukatzen genuen parrandan. Gaur egun jokalariek partidetara joan, jokatu eta elkarri agur esaten diote.

G.M.: Jendearen konpromisoa lortzea zailagoa da. Lehen taldearentzat mutikoak lortzea, partidak arbitratzea... egin beharreko lanak zirela pentsatzen genuen. Taldea lagundu behar zen. Azken urteotan nire taldekideetako batzuk desagertu egiten ziren entrenamendua edo partida bukatu bezain pronto.

M.P.: Bi koadrila genituen eta eskubaloikoarekin ordu asko ematen genituen: areto-futbol txapelketetan parte hartzen genuen, taberna jartzen genuen klubarentzat dirua lortzeko... Horrek guztia talde sentimendua indartzen zuen.

Partida gehien jokatu dituzten artean izango zarete...

G.M.: Baietz uste dut, Iker Soraluzerekin batera. Berak marka guztiak hautsiko ditu, oraindik luzaroan jokatzeko moduan baitago. Guk 500 bat partida jokatu ditugu.

Definitu batak bestea.

G.M.: Defentsan, Urola ezagutu dudan jokalaririk onena da. Jenio bizia zuen eta hori inork ez du gaur egun. Erasoan lau mugimendu besterik ez zituen, baina beti ondo ateratzen zitzaizkion. Oso eraginkorra zen.

M.P.: Teknika eta buru bikaina zituen. Taldea bere gain hartzen zuen. Erasoan, arriskatu beharra bazegoen, berak egiten zuen. Defentsan ez zen horren oldarkorra, baina jokalari bikaina zen. Hala, Urolatik talde handiagoetara joan zen.

Zergatik utzi zenuten eskubaloia?

G.M.: Ezkontza-itunean bigarren semealaba jaiotzen zenean eskubaloia utzi behar nuela idatzita zegoen... Niregatik izango balitz, jarraitu egingo nuke, batez ere honakoa 25. urteurrenaren denboraldia delako. Dena den, nire gorputza ez dago jada tontakeria askotarako.

M.P.: Nire belaunaldikoek erretiroa hartu zuten eta motibazioa galdu nuen.

Taldeari laguntzen al diozue?

M.P.: laz kadete mailako taldea entrenatu nuen eta eskatzen didaten bakoitzean nire laguntza eskaintzen dut.

G.M.: Nik ere talderen bat entrenatu nuen, denbora gehiago nuenean. Ezin naiz partidak ikustera joan, jokatzeko gogoa pizten baitzait.

Ba al da bereziki gogoratzen duzuen anekdotarik?

M.P.: Lehen gure artean zegoen giro onaz hitz egin dugu. Behin 30 lagun baino gehiago Asturiasera joan ginen astebete igarotzera: jokalariak, zaleak, jokalarien gurasoak eta neskalagunak...

G.M.: Itzela izan zen.

Zer eman dizue eskubaloiak?

M.P.: Asko eman digu: jendea ezagutzeko aukera, hezkuntza...

G.M.: Inguruko taldeetan, eta gurean ere, ez dut guk bizi izandakoa ikusten. Gutako asko 15 urte elkarrekin aritu ginela kontuan izan behar da.



Alex Areizaga

Informatika

Euskarazko softwarea

Oraingoan ez gara ordenagailurako trikimailuez arituko. Egunerokoan lagungarri izan daitezkeen baliabide batzuk ikusiko ditugu. http://www.euskara.euskadi.net helbideko *euskarazko softwarea deskargatu* aukeran sakatuz gero, hainbat baliabide, tresna eta programa dituen zerrenda agertuko zaigu, bertatik guk behar edo nahi duguna hautatzeko. Beste batzuen artean, *Xuxen* zuzentzaile ortografikoa, pluginak, *Openoffice*, *Mozilla*, sistema eragile euskaratuak, *QuarkXPress*-erako euskarazko hitz zatitzailea, *Elhuyar* hiztegia... aurkituko ditugu. Softwareaz gainera, hau nola erabili eta nola instalatu azaltzen duten gidaliburuak ere badaude orri honetan. Software honen bidez, hain erabiliak diren programek euskararen arloan dituzten hutsuneak betetzeko bidean beste pausu bat ematen da.

Oihane Sudupe

Osasuna

Hotzeria kontrolpean

Arabisagarra edo ezagunagoa dugun pomelo fruituaren hazien estraktuari antibiotiko eta hantura aurkako ezaugarriak goraipatu zaizkio. Fruitu honen hazien printzipio aktiboek dute hotzeriaren aurkako eragina gure organismoan. Zitriko onen ospea aprobetxatuz, hainbat enpresak komertzializatu dute aipatutako estraktu hau eta egunean bitan 10-15 tanta hartzea gomendatzen dute. Baina, fruitua osorik era freskoan hartuz gero fruituak berak dituen ezaugarri onuragarriak eskura ditzakegu, hala, oxidazio zelularra ekiditen duten sustantziak, C bitamina, azido folikoa eta karotinoideak. Mineraletan potasioa eta magnesia azpimarratzen dira. Fruitu hau udaberrian loratzen da eta udazken-neguan heldu. Beraz, naturak berak eskaintzen digu fruitu hau bere onenean, guk bere beharra dugun garaian.

Habi-ohea

Ilun irakurri ninduzun azken gutunean, badakit. Gaur ere banator negar malkoz idatziriko papera eskuartean dudala. Gaur ere nire txanda da, entzun! Ez didazu hitz egin nahi, beraz, entzun. Ilun usaindu ninduzun utzi nizun azken argazkian, badakit: irribarre isila, begirada galdua, buru makurra, hezur estuak eta azal zimurra antzeman zenizkidala. Eta bihotza? Eskerrak, eskerrak hura ikusterik ez zenuen izan.

Maldan gora nekez, karriketan zehar hotz, bizikleta zaharra suma zitekeen nire atzean, argazkiaren eskuinaldean. Non atera genuen argazki hura? Zuk egin al zenuen? Bai, hala uste dut. Zenbat bizipen kale haietan, oroitzen? Istorio ugari dituzte gurpil horiek, istorio gehiegi ditu txirrin ugertuak. Barre egiten genuen atarian lehertuak. Eta han zinen zu ere: euripean makurtua, izkinan makurtua, ezkutuan makurtua, beldurrez makurtua, belaunak hartuta, han zinen. Baina, esan: nork egin zizkigun erretratuak?

Hutsik nago barrutik, baina ez zait ezer gehiago sartzen, ez dago miseria gehiagorentzat lekurik, ez dago odol uholde hau jasango duen kupelik, ez dago barmanik aho beroak hozteko koktel izoztuak egin ahal dituenik, ez dago, ez dago. Nor da inor zure bizimodua epaitzeko? Nor da inor zure epitafioa baimenik gabe zuri-beltzean jartzeko? Nor da inor ezagutu zintuela esateko?

Baduzu gogoan Esoporen istorioa? Astoarena? Ba omen zen behin asto trebe eta ausart bat. Egun eguzkitsu batez, astoa izerditan blai eginda zegoen, leher eginda. Alboetan saski bi zeramatzan: gatzez bete-beteak, bata zein bestea. Ibai bat gurutzatzen ari zela, irrist egin eta uretara erori zen asto gaixoa, gure asto nekatua. Gatz gehiena urarekin disolbatu egin zen; eta astoa, bizkarra arin-arin zuela, txistuka irten zen ibaitik, lasai, fresko, deskantsatuta. Baina, beste egun batez, hura ere eguzkitsua, beroa, uda-udakoa, belakiz beterik hurbildu zen ibaira, eta, irrist egin baino lehen, uretara salto egin zuen nahita. Gure asto alferra konturatu zenerako, belakiek ibaiko ura xurgatu zuten; eta, pisuaren pisuz, ibaian hondoratu eta ito egin zen.

Ni ere hala nago, hondoan, itota. Belakiek ezin dezakete malko gehiago xurga. Eta nire bizkarrak ez du zama hau gehiago jasan nahi. Ibaira bota nahi dut neure burua eta ez ditut kontuan hartuko ez malko gaziak ez belaki bustiak. Astoa baino astoagoa izan nahi dut, eta hondoan egon, bertan loak hartuko nauen esperoan, inork aterako ote nauen esperoan, ibai ertzean zure isla noiz ikusiko zain. Malko gabe zain.

Beltz dastatu zenituen bart nire negar anpuluak, eta beltz suma dezakezun larrosarekin natorkizu bisitan orain. Hemendik entzun zaitzaket, hemendik senti zaitzaket, hotz baino hotzago, hil baino hilago. Zelai hezean moilatua nago. Zer gertatu zaizu? Zer egin dizute?

Gure gotorlekua zen ohea, zure erresuma eta nire konkisten agertoki zena, hutsik aurkitzen dut gau eta egun. Argi nahiz ilun, hotz nahiz bero, ez dago lurrunik, ez dago irririk, ez dago zetarik, ez dago deus. Kaosa da: osotasun hutsa eta ezereza. Ez zaude. Lur, zizare eta harrez eraiki dizuten habi-ohea eragitera etorri naiz faltan zauzkadalako. Ez zauzkadalako.

Ontzigalera baten ostean bezala nago, gidatzen ninduen naoa itsasoak eraman du. Ohe azpian gordetzen zenuen kutxari eutsi natzaio buia bat balitz bezala. Irudi eta letren bilduma hau igurzten dut uneoro, atera ditut soinekoak, atera ditut armairutik bakero eta kamisetak, zapatak ere, kendu ditut apaletik. Irakurriko ez ditudan liburuak ere utzi dizkizut alfabetikoki gordeak, itzultzen zarenerako, behar dituzunerako, esnatzen zarenerako, berpizten zarenerako, berraragiratzen zatzaizkidanerako.

Josune Aranguren

www.otamotz.com web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Harkaitz Barreros



Harkaitz Barreros urretxuarrak 29 urte ditu. Gainzuri ikastetxean ikasi zuen eta ondoren Batxilergoa hasi zuen, baina ez zuen gustuko eta ile-apainketa ikastea erabaki zuen. Duela 10 urte Har-Gor ireki zuen Nekolalde kalean Rakel neskalagunarekin, Gorka anaiarekin eta Irati azken honen bikotekidearekin. Gorkak eta Iratik gutxira utzi zuten. Duela sei urte, berriz, berak eta Rakelek H&R ile-apaindegia ireki zuten Barrenkalen. Oso gustura daude bertan. Lanetik kanpo motoan ibiltzea atsegin du, batik bat.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Albaitaria

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Motorrean ibiltzea. Nire zaletasuna eta droga da. Kirola egitea ere atsegin dut.

Bizitzeko toki bat?

Gabiria. Abuztuan bertara joan ginen bizitzera. Pilotalekuaren goialdeko lursailean egin dugu etxea.

Zer pentsatzen duzu burusoil bat ikusten duzunean?

Lehen ilea zuela... Egia esna, ilea galtzea oso gogorra izango litzateke niretzat.

Zein ospetsuri moztuko zenioke ilea gustura?

Paulina Rubiori. Begiko dut.

Ilea ondo daraman pertsonaia famaturen bat?

Jesus Vazquez, Penelope Cruz eta Najwa Nimri, adibidez.

Eta gaizki daraman besteren bat?

Real Madrileko Guti.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak, inongo zalantzarik gabe. Beltzarana argitzea erraza da, baina ilehoria iluntzea arriskutsuagoa da.

Egindako azken oparia?

Gabonetan, arropa.

Eta jasotakoa?

Gabonetan mendiko motozikleta oparitu zidaten.

Data bat?

Ekainaren 24a. San Juan eguna asko gustatzen zait. Oroitzapen onak ekartzen dizkit, gainera.

Neska eta mutil izen bana?

Nahia eta Unax.

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Gara.

Gustuko telebista saioa?

Egia esan behar badut, *El conquistador del fin del mundo* saioak harrapatu egin nau. Juanito Oiartzabal haserre ikustearren, dirua ordainduko nuke.

Bereziki gorroto duzuna?

Ile-apaintzailea naizen heinean, *Supermodelos 2007* saioak iraindu egiten nau. 2006koa txarra izan zen eta 2007koa okerragoa. Ez dut uste astakirten bat modelo baten onena ateratzeko gai izan daitekeenik.

Pelikula bat?

El último mohicano askotan ikusi dut.

Liburu bat?

Irakurri dudan azken liburua Jon Maia lehengusuak idatzitako *Riomundo* da.

Soinu bat?

Naturak eskaintzen dizkigun guztiak oso aberasgarriak iruditzen zaizkit.

Usain bat?

Perfume onarena.

Janari bat?

Amak koilararekin jateko prestatzen dituen guztiak.

Ura ala...

Ura.

Construcciones
MENDIOLA

Labeaga, 9- Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

Etxebizitzen eraikuntza

Industria pabilioiak

Urbanizazio lanak

Legazpiko Olazabal Institutuaren ondoan **6 chalet adosaturen** eraikuntza berria

ZUM Edizioak

iKER

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza- ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI

FAGOR